

Joseba Azkarraga Etxagilabel

SOZIOLOGOA

## Sistemaren krisiaz

**G**oizean goiz utzi duzu ohearen goxoa, Bilbon garaiz egoteko. Trenean lagun bi jarri zaizkizu ondoan, biak 70 urte bueltakoak. Emakume dotorea bata, euskaldun itxura du, jeltkidea seguru.

Bisoizko abrigoa kapela elegantearekin konbinatu du. Gizon erdalduna bestea, langile erretiratua. Kondizio umila du honek, zapata zaharretan sumatzen zaio.

Sevillatik irten eta 14 urterekin Durangora etorri ei zen gizona, 1958an, halaxe diotso emakume euskaldunari. Elkar ezagutzen ez badute ere, berrikeretan natural hasi dira, adinekoek ez dute norbere baitan biltzeko enpeinu posmodernorik, pentsatu duzu.

Gizonak, grazia andaluzaren arrastoarekin: “Dirua daukanak dirua irabazi behar du, bestela pobreek eta langileek ez dute jatekorik izango”. Emakumeak gusturago dirudi bere klase soziala txalotzen entzun ostean, eta ausartu da: “Norbaitek horrela ikusiko ez balu, eros dezala lokala, makinaria, eta ea errekuperatzen duen inbertiturikoa”. Erantsi du euren aitak bazekiela zer zen enpresa gobernatzea. Jaiotzak eman dizkio jantzi dotoreak, kapela, eta bizi-jarre-tentea, ondorioztatu duzu.

Berritsua da gizona: “1958an, trenetik Durangon jaisteaz batera zu zertara zatoz?, galdetu zidan batek. Zertara etorriko naiz ba, erantzun nion, lan egitera!”.



KARLOS CORBELLA

Langilearena egin nahi du langile ohiak, eta gaiari buelta larregi ematen hasi zaio, bizi guztiko estigma gainetik astindu guran bezala: “Eurak” lanerako etorri zirela, gezurretan aritzeko ez, lapurretan egiteko ez, alferkeriatan ibiltzeko ez.

“Gaur horixe falta da, beharra egiteko gogo” adostu dute. Nagikeria norberaren eta komunitatearen kontrako krimena dela argitu ostean, gizonak are morroiago: “Gaur langileek eskatu baino ez dute egiten. Zenbat irabaziko dut?, galdetzen du gazteak. Zenbat lan egingo duzu? esan beharko zaio”.

Adoretuta, emakumeak gaurko usteltze moralaren sakonaz: “Gaur egun, zenbat lapurreta! Ez dakit hau modernismoa den, baina txarrera goaz. Hobera ez, behintzat”. “Lehen pobreagoak ginen, baina lapurrak ez” erantzun du langile ohiak bere estigma historikoa eskualdatu guran. Goibel baina andaluzieraz segitu du: “Zer ote da 20 urte barru. Nire ilobak gaur ondo bizi dira, baina bihar-etzi...”.

Kapelari eskuarekin bultzakadaxoa eman eta, mimoz kolokatu bitartean, sententziatu du emakumeak: “Karramarroaren antzera, atzeraka”.

Bizi dugun krisi sistemikoaren aurrean, batzuek kapela elegantea dute jokoan, bestetuek zapata zaharrak. Itzela da aldea, pentsatu duzu. Eta hori ez dago gogor lan egitearen baitan. ■

◀ Bizi dugun krisi sistemikoaren

aurrean, batzuek kapela

elegantea dute jokoan,

bestetuek zapata zaharrak ▶

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Dokumentala egin dutela jakin dut hedabideak medio.

Haize Goikoetxea, Mikel Txapela GALEk erailaren alaba izan omen da horren sortzailea. Bere aitaren errautsak, Hondarribia eta Hendaiako itsas altzoan txalupa batez nola izan ziren zabalduak gogora ekarri dit. Frantsesa ikasten aritu ginen elkarrekin, eta klasearen pisua arindu nahi zuenean, egiten zituen marrazkiak ditut gogoan. Komiki zalea izaki. Gure seme-alaben Olentzeroarena egiten zuen Donibane Lohizuneko ikastolan. Sekulako kolpea izan zen bere erailketa. Jai Alai pilotalekuan egin genion ome-

## Itsasoaren alaba

zeraman lehergailu batek akabatu zuena, tartean genuen berari egin kantuak dioen bezala “bi gaitaz jo Txapelari Txomin ta Ramuntxori egina”. Ikastolako ikasleek ere, orduan hamabi bat urte zutenek eskaini nahi izan zioten beren barne mina, garaiko prentsa arinak era oso gaiztoan menostu nahi izan zuena. Bilbon eta Gernikan eman behar omen dute dokumentala, eta Lapurdiko kostalde honetara ere ekartzea eskertuko genuke. Bere anaia nagusia, hura ere Txapela, Guardia Zibilak tiroz eraila gogoan. ■

naldia gu guztion gomutan atxikitzen dugu. Kristof Isteque gaiteroa, handik urtetara